

Geografia

- BATXILERGOA
- LANDIBE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKANTASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Probaren balorazio orokorra 10 puntukoa izango da:

1. Ariketa praktikoa: 4 puntu.

Kontuan hartuko da mapak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea.

2. Gai bat garatzea: 4 puntu.

Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.

3. Kontzeptu geografiko batzuk definitzea: 2 puntu.

Kontzeptu bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke. Definizio bakoitza 0tik 0,5era kalifikatuko da.

Kontzeptuak argi eta zehatz definitzea hartuko da kontuan.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

La valoración total de la prueba será de 10 puntos:

1. Prueba práctica: 4 puntos.

Se valorará la correcta elaboración de los mapas, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.

2. Desarrollo de un tema: 4 puntos.

Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones


3. Definición de conceptos geográficos: 2 puntos.

Deben ser definidos en una extensión que no sobrepase las 5 líneas. Cada definición se valorará de 0 a 0,5 puntos.

Se valorará la claridad y precisión de las definiciones.

1. Espainiako probintzietara iritsitako atzerritarren ehunekoen maparen iruzkina. (4 puntu)

Atzerritarren ehunekoa, 2010




2. Euskal Autonomia Erkidegoko erliebe-unitate nagusiak. (4 puntu)
3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):
- Arro hidrografikoa (0,5 puntu)
 - Populazio-dentsitatea (0,5 puntu)
 - Konurbazioa (0,5 puntu)
 - Nekazaritza-ustiapena (0,5 puntu)



1. Euskal Autonomia Erkidegoko industria-enpleguaren dentsitate-maparen iruzkina. (4 puntu)

Industria-enplegua /km²



2. Espainiako klima mota nagusien eta klima-eremu horietako bakoitzari dagokion landaredi motaren sintesia. (4 puntu)
3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):
- Modelatu karstikoa (0,5 puntu)
 - Trantsizio demografikoa (0,5 puntu)
 - Metropolialdea (0,5 puntu)
 - Tertziarizazioa (0,5 puntu)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoak eta iruzkinak benetan erlazionatzea eta kokapen kartografiko zehatzak egitea.
- ezagupen-maila

Irizpide espezifikoak

A AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

Nabarmendu behar diren alderdiak: Atzerritarren garrantzia Espainian (5,7 milioi baino gehiago 2010ean). Atzerritarren banaketa ezberdina lurraldean. Atzerritar gehiago hiri handiko lurraldeetan, zerbitzu garatuak (turismoa, batez ere) dauden tokietan eta nekazaritza intentsiboko eskualdeetan. Atzerritarren ehunekorik altuenak Espainiako ekialdean eta erdialdean: Madril, Guadalajara. Errioxa, Lleida, Mediterraneoaren aldeko probintzietan eta artxipelagoetan. Ehunekorik baxuenak Espainiako mendebaldean: Galiziako probintzietan, Portugalekin muga egiten duten probintzietan (Zamora, Extremadurako probintziak), Palentzian, Kantauri itsasoaren aldeko probintzietan, eta Andaluziako zenbait probintzietan (Jaén, Kordoba, Sevilla eta Cádiz).

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

Bi unitate nagusi: Eusko mendiak eta Ebroren sakonunea.

Eusko mendiak, Deskribapena, bereizten diren unitatearen arabera, zenbait modutan egin daiteke. Batxilergoko eskuliburuetan, hauek bereizten dira:

- Kostalde aurreko mendikatea.
- Atlantiko-Mediterraneo uren banaketa-lerroko mendiak.
- Hegoaldeko arro eta mendilerroak.

Unitate horien kokapenaren, material nagusien, modelatuaren eta altitudeen deskripzio labur bat egin behar da.

Beste deskribapen bat, aurrekoa bezain baliagarria, bereizketa hau egiten duena da:



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

- Kostaldeko mendikatea.
- Kostalde aurreko mendikatea.
- Bortziriko mendigunea.
- Ibaibide nagusietako erdialdeko ibilguetako mendi eta haranak.
- Atlantiko-Mediterraneo uren banaketa-lerroko mendikatea.
- Lautada.
- Arabako erdiguneko mendilerroak.
- Mendebaldeko haran eta mendilerroak.
- Trebiñoko arroa.
- Hego-ekialdeko haran eta mendilerroak.
- Toloño-Kantabria-Joar mendilerroak.

Era berean, unitate horien kokapenaren, material nagusien, modelatuaren eta altitudeen deskripzio labur bat egin behar da.

Deskribapen biak baliozkoak dira.

Ebroren sakonunea: Arabako Errioxan dago.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek, gehienez, 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Arro hidrografikoa: Ibai batek eta haren ibaiadarrek drainaturiko lurraldea.

Populazio-dentsitatea: Pertsonen eta berek hartzen duten lurrazalaren arteko erlazioa. Kilometroko biztanletan (bizt./ km²) adierazi ohi da.

Konurbazioa: Bi hiri edo gehiago paraleloan haztea hiri-aglomerazio batean batu arte.

Nekazaritza-ustiapena: Jabe edo enpresaburu bakar baten erantzukizunaren menpe dagoen nekazaritzako ekoizpen-unitatea.



B AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

- Autonomia-erkidegoaren mailan: Alde batetik, Bizkaia eta Gipuzkoa; beste aldetik, Araba. Hiru hiriburu garrantzia; kostaldeko biak, barneko industria-igarobide batek lotuak daude (Gipuzkoako Deba, Urola eta Oriaren haranekin lotzen den Ibaizabalen harana).
- Probintzia-mailan: A) Bizkaian: Industria Bilbo Handia eskualdean bildurik dago (Ibaizabalen ezker aldean, Txorrierriko igarobidea – Zamudioko teknologia-parkea—, Basauri). Industria-jarduera Durangalderantz (Ibaizabalen harana) eta Plentzia-Mungia eskualderantz zabalduta; gainerako eskualdeetan (Gernika-Bermeo, Markina-Ondarroa, Enkarterri), industria gutxi dago. B) Gipuzkoan: Industriaren agertzea orekatuagoa da lurraldean zehar: Donostialdean eta Deba, Urola eta Oriaren haranetan. C) Araba: industria hiriburuaren inguruan metatu da; Nerbioi Garaian (Laudio, Amurrio) bigarren mailan agertzen da eta Agurain, Oion, Legutio eta Lantaron udalerrietan industria bakartuak daude.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

Mota guztiak bereizi eta kokatu behar dira. Haietako bakoitza kokatzeaz eta zuzen izendatzeaz gainera, haien elementu, erregimen eta faktoreak azaldu behar dira.

- a) Klima ozeanikoa: Penintsulako ipar eta ipar-mendebaldean, prezipitazio ugari eta erregularrak (800 mm baino gehiago urtean), temperatura-bitarte txikia, uda atsegina eta negua ez oso hotza; temperatura-bitarte handiagoa barnealdera sartu ahala. Baso hostogalkorra, larreak eta landak.
- b) Klima mediterraneoak: Balear uharteak eta ia Penintsula osoa hartzen ditu. Prezipitazio eskasak –urteko 300 eta 800 mm artean- eta irregularrak; uda lehorra. Baso hostoiraunkorra eta sastraka mota batzuk. Motak: b1) Mediterraneo itsasaldekoa: Mediterraneo kostaldea, hego-ekialdea izan ezik; hegoaldeko kosta atlantikoa, Balear uharteak. Temperatura-bitarte moderatua; prezipitazioak ugariagoak hegoaldeko kostalde atlantikoan (negukoak) Mediterraneo kostaldean (gehiengo udazkenean) baino; b2) Mediterraneo kontinentalizatua: Penintsulako barnealdean; Ebroen haraneko erdialdean izan ezik; prezipitazioak urriak, pixka bat handiagoak mendebaldeko sektorean (Extremadura), txikiagoak Gaztelako sakonunetako erdialdean; euri-erregimen ekinoziala, temperatura-bitarte handiagoa; b3) Mediterraneo lehorra edo estepakoa: Penintsulako hego-ekialdean eta Ebroen haraneko erdialdean; urteko 300 mm baino gutxiago; Ebroen haranean estepako klima hotza eta hego-ekialdean estepako klima beroa.
- c) Mendialdeko klima: ezaugarri termiko eta plubiometrokoetan aldaketak gertatzen dira altituderekin eraginez 1.000 metrotik gorra. Prezipitazioak urteko 1.000 mm baino gehiagokoak; tenperaturen beherakada, negu hotzak. Zenbait landaredi-estai.
- d) Kanarietako klima: subtropikala; d1) kostaldekoak: Kostaldean 500 metroko altituderaino; prezipitazioak urteko 350 mm baino gutxiagokoak, urteko temperatura-bitartekoa oso txikia; d2) “hodei-itsasokoa”: erdialdeko altitudertean, 600-1.500 metro artean; prezipitazioa 500-1.000 mm tartean,



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

gehiagokoak iparraldeko isurialdeetan hegoaldekoetan baino; d3) alturakoa: prezipitazio txikiagoa, negu hotzak, tenperatura-bitarte handiagoa. Zenbait landaredi-estai altueraren arabera.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek, gehienez, 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Modelatu karstikoa: uraren eraginez eta CO₂-aren eraginez kareharrizko arroken desegite-prozesuen ondorioz sortzen den modelatua.

Trantsizio demografikoa: Jaiotza- eta heriotza-tasa altuak ezaugarri dauzkan gizarte preindustrial batetik tasa baxuak dauzkan gizarte industrial edo postindustrial baterako bilakaera-aldia deskribatzen duen teoria.

Metropolialde: hiri nagusi eta dinamiko batek eta haren eraginpean era osagarrian hazten diren inguruko beste batzuek osatzen duten multzoa.

Tertziarizazioa: jarduera ekonomikoaren barnean zerbitzu-sektore edo hirugarren sektorearen hazkunde nabarmena dakarren eraldaketa ekonomiko eta soziala; hirugarren sektorea, hala, lanpostu gehien sortzen dituen eta BPGari (barne-produktu gordinari) gehien ematen dion sektorea izatera pasatzen da.